

1 IBILBIDE HISTORIKOA

Prozesu batean gaude eta ez dago garbi noraino helduko den, ez baitaude helburu zehatzik. Ezjakintasunean/ziurgabetasunean bizi gara. Prozesu berri/ezezaguna da, ezinbestean berritzea behar dugu. Hasiera batean bai, egungo datetan ere eta geroan ere berritzea beharrezkoa da. Prozesu konplexu eta berria da beraz. Beraz, ezaugarri horiek erantzun garbiak aurkitzea galarazten digu.

Europaren mitoa: Greziako mitologian Zeus zezen bat bihurtu zen hondartza batean zegoen neska gazte lirain bat, Agemor Libanoko Tiro hiriko erregearen alaba, bereganatu hurbil zedin. Zeusek aprobetxatuz neska bere magalean zegoela, habiadura hartu eta itsasora sartu zen, hau bahituz eta Kreta irlara eramanez. Kreta, labirinto bat edukitzeagatik da famatua, labirinto horretan minotauro bat zegoen. Agemorren belarrietara berria iristean seme zaharrena bidali zuen alabaren bila. Neskaren bilaketa hori Europarekin lotzen da, Europaren bila bait gabiltza. Horrela esaten dute, hainbat hiri fundatu zirela Europaren bila (Tebas, Kartago ...).

Europaren mugak ere ezezagunak dira. Europako kontseilua: Estrasburgo. EB baino lehenago sortua da. G.e 48 kide ditu. Haien artean Azerbaijan.

Europaren sustrai kulturala **Carrefour**-en du ardatza. Atenas, Erroma eta Jerusalem hiruki bat daukagu. Asko eragin izan dute hiri hauek Europan, hiru hiri horietatik Europaren auzia uler daiteke.

-Atenas politeistak, jainkoak/sak gugandik hurbil bizi ziren Olimpo mendian.

-Jerusalem monoteistak, jainkoa zeruan bizi ziren.

-Erroma hasieran politeista eta gero monoteista. Inperioa 2tan banatuta.

Alfabetoaren ideia ere biribilgunetik dator, mesopotamiatik. Egiptok eragin handia izan zuen Greziarren eta hauek Erromatarren eta aldi berean azken hauek Europarren.

Europaren kulturaren oinarrian dagoen ekarpen greko latinoak horrek ere ekarpen handia jaso zuen mesopotamiatik, egiptotik... biribilgune horretatik. Erromatarrek heltzean kultura greko latinoarekin herri orok (europakoak) bota egin zuten beraiena eta gero bakoitzak hartu zuen hortik zerbait eta nolabait horrela gertatuta azkenengo 2000 urte. Zaku greko-latindarrean herri bakoitzak zatitxo bat uzten zuen eta poltsa horretatik interesatzen zitzaiona hartu.

Karlo Magno garaian eta ia 1300 urteren ostean lurralde berdinean gertatu zen jatorria izan zuen hurbilketa prozesua. Gero 2000 urtean europar ekonomia elkarteak eratu izan zuten hartu zuten jatorrian Frantzia, Italia, Alemania eta Benelux, gaur egun ekonomikoki Europaren erdigunea dena. 1000. Urtean hedapen bat sortu zen Europan hegoalderantz hain zuzen iberiar penintsularantz. Islameko herrialdea izan zena bihurtuko da zenbait mendetan berriro Europan gauza bera gertatu zen Italiako hegoaldean, hor ere islama zen. Baita ere beste hedapen bat Greziaren mundura, frankoak kokatuko dira Grezian baita Sirian nolabait hegoalderantzko europarizazioak mundu Greziarantz, islamdarra dauka aurka ere.

Iparraldeko herriak Europara gerturatu zutenak germaniarrak izan ziren.

2000: Europar Ekonomia Elkartea sortu zuten, jatorrian hartu zuten Fran, Italia, Alemania eta Belgika.

1000 Europak hedapena izan zuen hegoalderantz, Iberiar penintsula aldera.

Greziarren aldera beste zabalpen bat, oraingoan Frankoek eginda, Sirian ere. (islamiarrak)

Iparraldean Slaboak ziren. Zona paganoa zen ia hiririk gabe.

Alfabetoaren ideia ere biribilgunetik dator, mesopotamiatik.. Beraz, esan dezakegu alfabetoa bezalako ideia batengatik aspaldi gaudela interkonektatuta, hau ez da ideia berria, berria dena da konexio horiek hedatzeko abiadura. Hala ere, kultura greko-latino horrek influentzia handia jasan zuen Mesopotamia edo Egipto bezalako herrialdeetatik. Hala ere, erromatar inperioa zabaldu egin zenean, kultura greko-latindarra Europa osora zabaldu egin zen eta lokalismo bakoitzak ekarpen bat egin zion kulturari hartu-eman batekin.

X mendetik aurrera, influentzia hori Germanioen eskutik etorri zen, "*Sacro-imperio Romano-Germanikoaren*" eskutik. Bide honetatik Germanioek ekialdea erakartzea lotu zuten, Benelux, Frantzia, Lombardia eta Germanioak batu ziren, gaur egun ere Europako erdialde ekonomikoa dena. Ondoren, islama agertzen zaigu aurrez-aurre Hegoalderantzko kolonizazioan, ekialderantz berriz eslavoak.

Ilustrazioa (XVIII) izan zen beste urrats historiko bat. Honekin batera, beste europeanizatzeko handia egiten da (Lisboa, Dublinetik San Petesburgoraino) pareko ideiak (arteak, literatura, kultura...) hedatzen delako nonahi eta abiadura izugarrian. Espazio horren barnean daudenak Europa osatzen dutela esan daiteke. Ez "manu militari" inposazioak egon zirelako. Kultura komun bat ikusten da, hasieran eliteen artean zabaldu zen, oso jende gutxi zegoelako alfabetaturik. Ondoren populazio gehienera zabaldu ziren ideia eta kultura hauek. Europako iparraldeko garai honetan Europa barnean koka dezakegu, germanoek Europako sustrai greko-latinoak eraman baitzituzten Finlandiaraino. Ilustrazioa posiblea da eta eragina du, lehenagotik germanoek bultzatu baitzuten. Ordea, Europaren hegoaldea, islamaren eraginez, ahultzen joan da.

Auzi franko-germanikoa (XIX-XX): Eragin handia Ardatz/Estatu franko-germanoak. Hauek indarrak potenteenak dira eta hirutan talka egin dute, III. Gerrate franko-prusianoan, IIMGn eta IIMGn. Talka hauek Europaren historian eta EBkoan zerikusi handia izan dute.

AEB-UK: OTAN-NATO (Gerra hotzaren testuinguruan)

Aldi berean, aro garaikideko Europa ulertzeko, Erresuma Batuen eta Amerikaren arteko gatazkek eragin handia izan dute. Europak ez du defentsako armadurik ez IIMG ondoren ez SESB desagitean. Horregatik NATOren beharra du, zeinak AEBk kontrolatzen duen. Beraz, menpekotasuna sortzen da AEBrekiko.

XX hasieran inperioak gailentzen ziren Europan gaur egun ordea Estatu-nazio unitate politikorik garrantzitsuenak.

XX hasierako inperioak (10)

Alemaniar Reich II	Frantzia
Austria-Hungaria	Espania
Inperio Otomandarra	Portugal
Errusiar Inperioa	Herbehereak
Britainia Handia	Belgika

Herrialde berriak XXI hasieran

Txekia	Irlanda	Austria
Eslovakia	Estonia	Txipre
Eslovenia	Lituania	Finlandia
Kroazia	Letonia	Malta
Errumania	Hungaria	

Mende luzeetan zehar garatu den prozesu bat izan da Europa.

XX. mendea

IIMG (1914-1919)

Oso konflikto/gatazka handia, orduarte muduan gertatutako handiena izan zen. Batez ere biktimen ikuspuntutik. Fronteetan (4) 8 milioi eta erdi, populazio zibilean 10 milioi, 6 milioi elbarrituta gelditu ziren. Ordurarte gerrate napoleonikoak izandako tamaina erabat gainditu zuen. Gainera, armeniar genozidioa eman zen, 1 milioi inguru lagun hil zituztela esaten da. Inperio otomandarraren ondoren, errepublika turkiarra egokitu zen eta hauek bultzatu zuten genozidio hau, Anatoliaren inguruan.

IIMG loturik gaitz garrantzitsua Sobiet iraultza izan zen eta horren ondorioz gerra zibila etorri zen. Bertan 5 milioiek bizia galdu zutelako estimatzen da, beste 4 milioi errepresioak hil zituen eta beste 6 milioi gogoseak (Ukrainian batez ere) gobernutik antolatutakoa izan zena.

Zenbait urteren buruan biolentziaren dimentsio haratago joan zen IIMG 35 milioi lagun hil ziren, beste 6 milioi exterminatu/sarraskitu/suntsitu. Inoiz ezagutu gabeko biolentzia egon zen munduan.

Estatu-nazioa geratzen da unitate politiko bezala. Europako estatu-nazio gehienak estatu totalitarioak (diktadurak) bihurtu ziren salbu Frantzia, Erresuma Batua, Suedia, Txekoslovakia eta Benelux (Belgika). Estatu-nazio gehienetan demokrazia suntsitzen da. Parlamentuek botereak eman Kantzilerrari Alemanian (Hitler), Italian Musoliniri.

IIMG bukatzean oso gogoeta presentea da zer egin horrelako gertaerarik gehiago gerta ez dadin eta parlamentuan kontrolpean egoteko. Hortik dator zehazki jurisdikzio konstituzionalaren edapena ia estatu gehienetan.

Esaterako, Europako kontseiluaren eratzearekin, non bere kontseilu nagusia Estrasburgon dagoen, Alemania eta Frantziaren

arteko hiria izan delako Rin hertzeetan, Alsazia. Batez ere sinbolizatzeko izan zen bertan kokatzea egoitza. Gainera, nazioarteko organizazio berri bat sustatu zuten Europako kontseilua, batez ere, oinarrizko esk eta ask babesteko. Batetik, zerrenda bat osatzen, Europear konbenioa deitutakoa eta bestetik, tribunal bat eratuz zeinari ahalmena eman zioten sinatzaileek estatu kideetan kontrolatzeko oinarrizko esk eta ask beti konbenioari begira. Praktikan jurisdikzio berria jarri zuten Europako sinatzaileentzat. Tribunal konstituzionalak Estrasburgokoaren pean geldituko zirela erabaki zuten. Oinarrizko esk eta ask babesa emate aldera, praktikan estatu kideetan parlamentuak, gobernuak kontrolatzeko. 1948an egin zen eta 10 kidek sinatu zuten. Europako kontseiluko bandera hemen sortu zen 12 izarrekin. 12: sinbolo de la perfeccion de lo completo y la unidad. G.e Europar kontseiluan 45 eta EB 28, hala ere haien banderetan 12 izar. Europear bandera urdina eta horia, zeruaren esperantza urdinarekin eta horiarekin argitasuna. 5 puntako izarrek zirkuluan.

Europaren dibisioa 2 bloketan banandurik, mendebaldekoa eta ekialdekoa. Baina Europako territorioan nolabait erditik zatiturik Alemaniatik. Horrek baldintzatuko du gerrate osteko historia baita Europako integrazioarako. 2 potentzia hegemonikoak munduan baita Europan. Europaren defentsarako batetik Sobietar Batasuna bestetik EEBB. Europaren zatitzeak gerrate osteko historia baldintzatuko du, baina europear integrazioarako. Europak ez du armadarik sortuko, saiakera bat egon zen 50 urte hasieran baina ez zuen arrakastarik izan, Europear Defentsa Erkidegoa. Frantsesek aurkeztu zuten, baina F parlamentuak ez zuen baimenik eman, proposamena atzera bota zuen. Alemaniak baietz esan zuen. Funtsean nahi zena zen Alemania nola inkorporatu jakitea. Armada estable bat egin zuten Alemaniarrak beste estatu-kideekin bat egitea nahi zuten. Gauzak hasieran bezala geratu ziren. Europako kontseiluaren ondoren NATO etorri zen, 50 urte inguruan. Europaren defentsaren kudeaketa AEBren esku uzteko paktoa egin zuten.

Marshall planaren bitartez, zenbat nazio-estaturen artean kudeaketa ekonomiko bateratu bat sortzen hasten da. Europar estatuak inbadituri, industria nazien alde, Italian ere. Amerikarrek erabaki zuten zorra ordaindu beharrean plan bat asmatzea Europar ekonomiak berpizteko eta haien artean koordinatzeko. Sobietek COMECON asmatu zuen hauek ere koordina zezaten. M Europan eragin handia izan zuen Marshall planak, laguntza handia izan zuten.

- Europaren dibisioa
- Berpizkunde ekon
- Babesa: esk eta ask + armada

Organizazio berriak sortzen dira, paradigma berria hedatzen delako europan. Hau elite pol eta ekon artean hedatzen delarik. Hagako kongresuan Europear zale mugimendu asko biltzen dira. Hiriburu ekon Amsterdam, hiriburu adm De Hage.

CECA: Comunidad Europea del Carbon y del Acero. Holako komunitatea egin zuten batez ere produkzio belikorako. Elkarrekin sektore hau kudeatuz baldintzak sendotuko dira bakean elkarbizitzeko. 50H Europako ekoizlerik garrantzitsuenak Rhin eta Rhunen inguruan zeuden. Schuman frantziar atzerri ministroa, bere izenean egin zen deklarazio famatua, Schuman deklarazioa. (1950eko Maiatzak 9: Schumanen deklarazioa- Europaren eguna). Alemaniari zuzendutako gonbidapen bat zen erkidego berri bat osatzeko eta ikatzaren eta altzairuaren industria elkarren artean kudeatzeko. Goi helburu bezala bakea zuena. Berez, Jean Monnetek bultzatu zuen. Beste pertsonai garrantzitsu bat, Jean Monnet izan zen (Europar Batzordearen lehenbiziko presidentea). Monneten laguna, Adenaver gerra osteko lehenbiziko alemaniar kantzilerra izan zen 80 urterekin, Zentro katolikoaren, Renaniaren irudi garrantzitsua.. Alemaniar jarrera berak determinatu zuen Europar integrazioaren prozesuan, hein handi batean Monneterekin oso ondo konpontzen zelako. CECA-ren bitartez Europako estatu kide batzuek bere subiranotasunari mugak jartzea erabaki zuten.

Europear Erkidego Ekonomikoa (1956). Nazioarteko tratatua, baina indarrean geroago sartu zen, denbora behar zelako estatu guztiak sinatzeko (1957). Merkatu komunaren helburuarekin. Ez zegoen aurrekaririk, beraz, asmatu behar zuten nola gauzatu merkatu komun hau. Adibidez, estatu-kideen arteko arantzel ezabatu. Horretarako 12 urteko epea eman zien eta ondorioz, batasun doainala lortu zen. Honez gain, kanpoko arantzel komun bat jartzea erabaki zuten. EFTA merkatu komunaren lehiakide izan zen, Erresuma Batuak bultzaturik Eskandinaviar estatuak, Suitza eta Portugalek sortu zuten. Baina hemen ez zegoen kanpo arantzelik. EEE merkatu komuna izango litzateke eta EFTA libre komertzioa. Integrazioarako bidean garrantzitsuago da Merkatu Komun bat egotea libre komertzioa baino, eta bien arteko ezberdintasuna da lehenengoan kanpo arantzelak dituela eta bigarrenak, aldiz, ez.

Batasun aduaneroaz gain, zenbait arlotan, politika komunak garatuko zituztela erabaki zuten, adb lur langintzan, nekazaritzan, lehiakortasunari begira ere oligopolio eta monopolioak ekiditeko lehiakortasun librea sustatzeko (Nahiz eta gaur egun oligopolioen presentzi maximoa dagoen). Kanpora begira 3. Estatuekin komertzioa egiteko ahalmen hori eman beharko zitzaioela elkarteko batzordeari. Izan ere, zenbait eskumen komun izateaz gain, erkidego horri instituzio komun batzuk eman zizkieten, lehenago CECari eman zizkietenak.

Erkidego honi zenbait **instituzio** komun eman zizkieten, lehen CECari eman zizkieten berberak. Merkatu komun hau

kudeatzeko:

-Ministro kontseilua: estatu kideetako gobernuaren ordezkatzeko. Ez du iraunkortasunik, biltzen denean soilik dago, bestela ez.

-COREPER: ordezkaririk iraunkorren komitea asmatu zuten ministro kontseiluaren iraunkortasun eza horren aurrean.

-Batzordea (goreneko autoritatea): Proposamenak egiteko ahalmena eman zioten, Europar proposamenak ez ditu egiten ministro kontseiluak ez Europako parlamentuak, batzordeak egiten ditu (Esp: gobernu eta parlamentuak). Politika edo fondoen arloetarako batzordeak du ardura. Funtzio legegileak (proposamenak egiteko) eta ekzekutiboak ditu. Baina proposamenak egin ditzake bakarrik ezin ditu erabakiak hartu. Europar kontseilutik geroz eta proposamen gehiago Batzordeei bideratzen zaizkie. Askotan ez da Kodezizio prozesuaren arabera erabakitzen. Integrazioaren motorra da batzordea eta garuna europar kontseilua izango da. Ekimena askotan europar kontseilutik datorrelako. 28 kide independente. 28 kide daude, estatu kide bakoitzak du ordezkaririk bat nahiz eta horiek ez ordezkatu estatu kideetako gobernuak ezta ere inongo organorik (teoriaz independenteak dira). Hemengo presidentea Juncker.

Kodezizio prozedura: Prozesu asko daude 20 bat prozedura, gaur egun arruntena hau da.

Ekimena: Batzordetik. Ondoren: COREPERera edo Europar Parlamentura. 3 aukera: Europar Parlamentua eta Ministro Kontseiluak.

Lehen aholkularirik zena gaur egun Europar Parlamentua koerabakitzaile bihurtu da.

Europar kontseilua sortu zen eta geroz eta rol inportanteagoa izan du, integrazioaren garuna izango da gaur egun.

-Europako Parlamentua: Europako hiritarrak ordezkatzeko. Hasieran ez zuten parlamentu deitu, Asanblada baizik. 70H aldatu zuen izena. Hasiera batean aholkularirik funtzioa zuen eta pixkanaka gero eta ahalmen gehiago bereganatzen joan da eta azkenean koerabakitzailea bihurtu da.

-Europar Kontseilua: estatuburu nagusiak biltzen dira, bertan hartzen diren erabakiek baldintzatzen dituzte estatu kideen aurrekontuak. Integrazioaren garuna dela diote. Hau da, zenbait alorretan ekimena Europar Kontseilutik datorrelako, goibururik politikoetatik. Azken urteetan, geroz eta rol inportanteagoa hartu du Alemaniak Europar Kontseiluak. Urte askoetan Frantziak eta Alemaniak hartu izan dituzte erabakiak, baina Frantziaren beherakadarekin eta Alemaniaren gorakadak horien arteko oreka apurtu eta Alemaniaren gailentzea nagusitzen da. 30 kide daude: 28 estatu kide, Batzordeko presidentea eta Europar Kontseiluko presidentea (Donald Dusk)

-Europa Batasuneko Justizia Auzitegia: Tratatuaren bitartez eratu da Europa. Idazki hauek modu askotara interpreta daitezke, oso luze eta ilunak direlako. Horregatik instituzio bate beharra dago horren gaineko interpretazio definitiboak / gorenkoak emateko . Testu hoiak orden juridikoa bat sortzen dute eta hauei babesa emateko dago EBJA. Bakoitzak bere interesak babesten saiatuko da horrela talka egiteak arruntak direlarik. Auzitegi hau sortu zuten beraz, arazo hauei irtenbide juridikoa emateko. Justizia Auzitegi honek ere jurisdikzio konstituzional baten antza badauka.

EEE-z gain EURATOM(Energia Atomikoaren Erkidego Ekonomikoa) ere sortu zen. Nahiko baztertuta geratu da ez zuelako izan garai horretan uste zen eragina. Gaur egun zentroa Italian dago baina gaur egun ikerkuntzarako bakarrik erabiltzen da.

ESTATUKIDEAK

Estatukideak agertzen dira lehen lerroan, azpimarratzeko estatu kideen garrantzia prozesu honetan, azken finean indarrean dauden tratatuak hauek firmatu dituztelako. Estatu kideak dira tratatuaren sinatzaileak.

Gainera, estatu kideek haien subiranotasuna tartekatuta dute Intergubernalismoaren aldetik eta supranazionalismoaren bidetik. Bi hari hauek nahasten dira eta hasieratik presente daude. Erkidegoei emandako ahalmenak zeintzuk pol batzuk garatzeko gorpuztuko diren, horiek kudeatzeko gobernu arteko akordioetan gauzatuko dira, esaterako lehen aipaturiko europar kontseiluan (70H sortua). Beste alditan supranazional bidez erabakiak hartuko dira, kasu hauetan alde batetik parlamentuak eta bestetik ministro kontseiluak ph dute. Gobernu ministro kontseiluaren baitan ph dute, baina erabakiak Europar instituzioak hartuko dituzte, hau da bera, supranazionalismoa. Formalki batzordeak du ekimena, baina praktikan europar kontseiluak (presidentea: Donal Dack) batzordea bideratzen du. Estatu-EBko eskumenak.

Nahasketa handia dago estatu kideen artean:

Batzuk berriak direlako, hasieran 6 bakarrik izan bait ziren 50H, g.e ordea 28. Hauetatik batzuk estatu zaharrak dira eta besteak ordea berriak. Honez ezberdintasun handiak ekartzen ditu.

Batzuk demografiaren alorretik oso potenteak dira, estatu populatuena alezia, Alemania / Frantzia, Erresuma Batua, Italia / Espainia eta Polonia. Baina badaude biztanleriaren arabera oso txikiak direnak, Luxemburgo, Malta, Txipre, Estonia... Ez dira ia milioira iristen.

Ekonomiaren alorrean ere gauza bera gertatzen da, BPG hartze badugu aztertzean estatu potenteena Alemania izango litzateke eta honi jarraiki Frantzia, Erresuma Batua/ Italia/Espainia (-3,6/2,6/1,5/1).

Batzuk iparraldean daude, beste batzuk eskandinabian, beste batzuk mediterraneo aldean, ekialdean, distantzia handiak daude haien artean beraz.

Distantzia kulturalak ere badaude beraz, nahiz eta homogeneousazio batera ere iritsi ginen (Ilustrazioa). Erreformatik garrantzi handia izan zuen, batzuk protestante eta besteak katoliko geratu ziren, gainera greziar ortodoxia ere badago.

5 milioi biztanle eta BPGaren arabera munduan handiena. Hala ere, batasuneko aurrekontuan estatu-kideen aurrekontuen %1 bakarrik biltzen da. Espainian adibidez, bere aurrekontuetarako %40a ematen da, datu hori oso esanguratsua da ezin baitiogu gauza askorik eskatu Europari. Horren arrazoi nagusia BEZa da.

Esaten da oinarriko lau eskubide behar direla zerbitzuak, kapitala, ondasunak eta pertsonak, ez dago dena kapital askearen menpe. Helburua merkatua baldin bada eta ez distribuzioa ezta populazioa ere, merkatua soilik, orduan beste paradigma batean gaude, ze gaur egungo paradigma ongizatearen inguruan garatu dela suposatzen da (Estatu Soziala), baina Europak ez dauka ideia hori helburutzat, merkatua baizik. Neoliberalismorako asunto inportanteena merkatua da gauza garrantzitsuena eta ez Estatua, ahalik eta Estatu txikiena da nahi dutena? Beraz, esan daiteke Europear integrazio prozesuan bi ideia kontrajarriak daudela, bi logika daudela, alde batetik Estatu Naziotik datorren paradigma (ongizatea), eta bestetik Batasunetik datorren paradigma nagusia (merkatua). Esan beharra dago Batasunaren paradigma dela nagusitu dena, ordenamenduaren antolamenduan nagusitasuna dauka Europatik datorrena, beraz, merkatuaren ideia da nagusitzen dena. Apurka apurka batasunerantz joan da EB, baina araudien arloan EBkoak lehentasuna du estatu kideen aurrean. Hala ere, ibilbidean hainbat etapa egon direla ulertu behar dugu, gauzak nabarmenki aldatu baitira, eta azelerazio bat etorri da merkatuaren mesedetan, batez ere euroagatik, azken hau merkatuaren batasunaren ikurra delako. Mastriketik g.e-ra gauzak asko aldatu dira, beti ere merkatuaren faborerako. Euroak nolabait merkatuaren batasunaren ikurra da. Merkatuarenganako logika hasieratik egon da.

TRATATUAK

50H: Ikatza eta altzairuaren tratatuari jarraitu zioten EEEK eta EURATOM.

60H: Ez dago garrantzi handiko trataturik, bai ordea fusio tratatua. Hala deitua izan zen, 3 erkidegotan zeuden instituzioak elkartu egin zirelako (ministro kontseilu bat, asanblada bat, edo justizia auzitegi bat). Krisialdi larri bati irtenbidea emateko, asmatu zuten Luxenburgoko Konpromisoa. Honen ondorioz erabakitze prozesua aldatuko zuten.

Frantzia 1960an Charles De Gaulle zen presidentea. Nazien aurkako erresistentzia handia gorpuztu zuen. Vichyn errepublikatxo bat sortu zen naziek Frantzia dominatzean. Orduko Petainen aurka agertu zen De Gaulle. Londresetik exilion zegoela Frantziaren erresistentziaren gogoia hedatu zuen. 1944an izan zen liberazioa eta nolabait De Gaulle geratu zen gerraosteko lider bezala. Dimititu egin zuen eta ondoren Argeliako gerra etorriko zen. Argelia Frantziako kolonia zelarik gerra oso odoltsua piztu zen.

Luxenburgoko Konpromisoa irtenbide izan zen Europa krisialdiari. Frantziak Europear instituzioetatik alde egin zuen eta frantses funtzionarioak ere. Europak batzordea saiatu zelako aurrekontuan moldaketak egiten. Orduarte nekazaritzak %80 hartzen zuen eta dirutza horretatik gehien hartzen zuena Frantzia zen (gehien sartzen zuena Alemania). Batzordeak pentsatu zuen nekazaritzari hain beste ezin ziola eman. Frantziak ez zuen onartu eta alde egin zuten 6 hilabetez. Gentelment Agreement batera heldu ziren eta akordio honen arabera estatukide orok adostu zuten noiz estatukide batek beti ere erabaki batera heltzekotan baleude eta estatukide batek berarentzat interes nazionaleko argudioa erabili balezake, orduan gainerako estatukideek konpromisoa hartzen zuten erabakirik ez hartzeko. Hau praktikan halako beto eskubide bezala uler dezakegu. Lehenago ez zen horrelakorik agertzen tratatuetan, gehiengo kualifikatua behar baitzen erabakiak hartzeko. Baina Luxenburgoko konpromisioaren arabera erabaki guztiak bihur zitezkeen unanimitatean hartzeko erabakiak. Interes nazionalaren izenean jartzea beto. Baina oso subjektiboa izan daiteke interes nazionala zer den zehaztea.

Honek baldintzatu zuen erkidegoaren ibilbidea 20 urtez, 1985 arte. Bertan, Europear Akta Bakuna indarrean jarri zuten. Hau

tratatuaren lehen erreforma potoloa izan zen. European Aktarekin gehiengo kualifikatura bueltatu zen, unanimitatez hartutako erabakiak eta sinplez ere. Nahiz eta praktikan generalean botaziorik ez izan, erabaki gehienak kontsensuz hartu dira, izan ere, saiatu izan dira ekiditen botazioak. Hemen ager daitezkeelako alde batetik gehiengo bat eta bestetik gutxiengo bat. Alderdiak agerian ez uztearren printzipioz saiatu izan dira erabaki gehienak botazio gabe hartzen, salbuespenak salbuespen. Esate baterako aste honetan hartutako erabakia (Errefuxiatuak 15/09/23). Blokeoarekin bukatzeko estatukide batzuk agertu dira.

70H: ez zen erreformarik egin, bai ordea aldaketa bat (garaian oso garrantzitsua zela uste izan zen) 79:lehenbiziz Europar Parlamentua osatzeko hauteskundeak deitu zituzten. Ordurarte asanblada osatzeko estatukideen parlamentuak haien baitako zenbait parlamentari hautatzen zituzten kargu hauetarako. Hiritarrek ahal izan zuten estatukide bakoitzari zegozkion eserlekuak boto bidez erabaki, ordutik 5 urtero deitu dira European Hauteskundeak. Ordutik hona ph hori geroz eta gutxiagokoa izan da. %70 ph egon zen eta %43 aurten (2015). Geroz eta ahalmen gehiago ematea eta ph gutxiagoa nola da posible? Erdia baino gutxiagok ez du ph.

80H: Europako akta bakunarekin erreforma handia etorri zen. European Batzordean lehendakaria Delors. 2 agintaldi egin zituen batzordeko lehendakari gisa. Batzordeko lehendakari garrantzitsua izan dela esan dezakegu. Ordudunik, karismarik gabeko eta lidergorik gabeko politikoak egon dira lehendakarian. Lisboaren tratatuaren ondorioz hautapenerako prozedura berriztu egin zuten eta Parlamentuak Kontseiluari esan zion hark aukeratuko zuela lehendakaria eta aurretik hautagaia izan beharko zen. G.e Juncker. Denbora luzez egon da aktiboki. Delorsek EAB 1985 bultzatu zuen eta agintaldi bukaeran Maastrichtekoa 1992.

EABren erreforma: Pol berriak ekarri zituen, esaterako, politika regionala/lurraldeko politika. Horretarako fondo batzuk eratu zituzten, FEDER, Fondo Soziala eta Egiturazko Fondoak (Errepide berriak Esp, hartzailerik garrantzitsua). Aurrekontuaren aldaketak ekarri zituen. 20 urte lehenago posible ez zena, orduan posible izan zen. Lur langintzarako fondoak ahuldu egin zuten eta orduan %80a izan zena, g.e aurrekontuen 1/3 da eta fondoei beste 1/3 bideratzen zaie. Lurraldera begira politika erregionalaz gain kontsumitzaileen eremurako politikak edo ingurumen alorrerako, industria politika ere sortu ziren. Politika horiek orduan hasten dira izaten european politikak, ordurarte estatukidetako pol izan baitziren. Momentu horretan hasten da partekatzen estatukide eta european instituzioen artean. EAB batera handitzen da nabarmenki European Erkidego Ekonomikoaren dimentsioa. Hein handi batean lur langintzarako edo lehenagotik lkatza edo Altzairuaren merkatu komunerako eratu zutena, bihurtu zuten pol berri horien bitartez Europaren dimentsio berria. Europa gehiago etorri zen, gainera, baliabide batzuk garatu zituzten merkatu komun horren funtzionamenduan traba gutxiago egoteko, hau da, errazteko estatu kideen arteko trukaketa komertziala. Hau da, hedatzeaz gain, sakondu egin zuten ere merkatuaren dimentsioa. Merkatu bakarra/bakuna hasi ziren deitzen, lehen merkatu komuna zenari hedapena eta sakonera hori adierazteko.

Maastricheko Ituna, 92. urtean, hare eta aldaketa handiagoa izan zen. Egitura berri bat ekarri zion eta izen berri bat ekarri zizkion : Europako erkidegoa izatetik, Europako Batasuna izatera pasatu zen. EB egitura hartan 3 zutabe zeuden. Erdian European Erkidegoa zegoen (lehen european ekonomia erkidegoa zena). Bestalde, PESC zegoen (Politica de Exterior y de Seguridad Comun), Kanpo eta segurtasun komunarako politika. JAI, justizia eta barneko aferak. EB baino lehen egitura eratu zuten barne merkatu bati begira, EB berri horrekin batera, beste bi dimentsio ekarri zituzten merkatuaren dimentsioa mantenduz, Kanpo eta Segurtasun Komunerako Politika eta Justizia eta Barneko Aferak. Bata kanpoari begira eta bestea barneari begira. Maastrichtekin batera Europar dimentsioa nabarmenki handitu egin zuten. Ordurarte inoiz egin ez zuten bezala, hein handi batean Delors-i esker. Aldi berean, dimentsio berri horrekin beste zerbait ere etorri zen, merkatuaren paradigma alegia. Momentu horretan paradigma hau handitzen hasi zen eta nagusitasuna hartzen. Ordurarte estatukideen aferak ziren merkatuaren hainbat kuestio. European integrazioaren sakontze handi horrekin estatukideetako ahalmenak izan zirenak european izaten hasi ziren. Estatu soziala izan da paradigma nagusia IIMG ostean, estatu nazioak estatu sozialak bihurtu ziren. Merkatua kontrolpean zegoen eta merkatu horretatik zetozen hainbat baliabide banatzen zituen estatu sozial horrek populazioaren artean. Orduan orokortzen dira, segurtasun sozialaren sistemak esate baterako. Barne produktuaren erdia banatzen zen. G.e paradigma merkatua da ez estatu soziala. Horregatik aurrekontua BPGaren %1a da, honek adierazten du bere helburua ez dela estatu sozial bat eratzea, merkatua duela helburu baizik. Eraldaketa hau azkartu egingo da euroarekin batera, horrela batasun monetarioa baitator. Honen arabera estatukideek galtzen dute ahalmena monetaren bitartez ekon eragina izateko. Batasun monetarioa lortu zen, baina, batasun ekonomikorik gabe, hau ordea, ez zen fin ibili. Baina, Maastrichen ondorengo hau ez zen benetan Delorsek nahi zuena, ondoren gauzak aldatu egin baitzituzten estatukideek. Hauek diseinaturiko egitura hau ordea ez zen egokia izan, 2008ko krisiak erakutsi zuen bezala.

Konbergentziarako irizpideak sortu zituzten, hainbat elementu makroekonomiko bateratzeko. Hau da, batasun monetarioa heltzeko, konbergentzia behar zen estatukideen artean. Eta konbergentzia horretarako zenbait irizpide makroekonomikotan

limiteak jarri zituzten. Hau da, euroan partaide izateko (2001 Espainia) konpromezua hartu zuten estatukideek euren defizita %6 baino gutxiago eta zor publikoa %3 baino txikiagoa izan behar zutela.

Egitura hau dela-eta, europar batasunak hainbat eskumen berri lortzen ditu, esaterako, energia-politika. Maastricht arte tratatuen egitura jarraitu egin zuten. Maastrichtekin batera, tratatuen numerazioa aldatu zuten. Beste bi zutabeetan ordea sistema intergubernamental gailendu zen, gob/estatu arteko erabakiak alegia, EBk Parlamentuak, batzordeak eta auzitegiak ezer gutxi zuten esateko pesc eta jae-ri buruz. Maastrichten 1.erreformarekin (Amsterdamen) komunalizatu egin zituzten Justizia eta Barne asunto asko. Nizako tratatua izan zen 2. Erreforma, erabakitze prozesuan birmoldatzeko estatukideetako errepresentazioa, hau da, hasieratik demografia handiko estatukideei errepresentazio gutxitua eman zieten eta alderantziz, txikikoei errepresentazio handiagoa Parlamentuan eta Ministro kontseiluan. Ez ziren iritsi, geroago Lisboako moldera, non nolabait demografikoki botoak banatzen diren batez ere ministro kontseiluan, beti ere demografia txikiko estatuen alde. Teorian horrela da, baina erabakiak normalean kontsensuz hartzen saiatzen dira, ez botoz. Praktikan ematen du Alemaniaren jarrera gero eta garrantzitsuagoa dela, eragin handiena erabakiak hartzeko garaian.

2000. hasieran, euroaren sorrera eta europear konbentzioa. Bertan prestaturiko konstituzio-testuak porrot egin zuen, alderdi ia gehienek baietz emateko deitu zuten, eta hala ere, boto-emaileen artean ezezkoa gailendu zen. Erreferendumaren edo erabaki parlamentarioaren bitartez konstituzio-testua:

6 estatukide historiko haien artean lehen Frantziak eta gero Herbehereak (lehenengo aldiz izan zen erreferenduma egiten) ezetza eman zuen. Espainian erreferendumaren bidez egin zen eta baiezkoa atera zen.

2 urteko eten baten ondoren, berriz bideratu zuten asuntua, Lisboako tratatura. K izateko tratatuan zegoena sartu zuten Lisboako tratatuan. Beste gauza bat zela esateko sinbologia kendu egin zuten (Europaren himnoa adb). Argudio bezala erabili zuten jendea ez zegoela prest Europako K onartzea. Argudio faltsua dela uste du Iñigok. Ez zen sinbologiagatik ezezkoa gailendu. Estatukide gehienek baiezkoa eman zioten tratatuari, baina nazioarteko tratatuak direnez, estatukide guztiek onartu behar dute. Honek zailtzen du prozesu guztia, batek ez badu nahi baiezkoa eman kolokan jartzen ditu gainerako estatukideen jarrerak. Irlandaren eskutik asko eman da hau. Irlandako K arabera nazioarteko tratatuak eta erreformak erreferendumeraren eraman behar dira eta 2 aldiz nagusitu da ezezkoa eta hartu duten irtenbidea aldaketa txikiak egitea izan da eta berriz erreferendumeraren deitzea baiezkoa jasotzeko. **

HEDAPENAK

50H: 6 estatuk osatu zuten erkidegoa. 2015: 28 estatu. 65 urtetan aldaketa handiak eman dira. Europear estatu gehienak gehitu dira, lorpen handia izan da batasunarentzat eta Europaren integrazio prozesurako. Gutxi batzuk gelditu dira kanpoan. Salbuespen harrigarrienak Suezia eta Norvegia. Bi hauek EFTAn daude (European Free Trade Association). EFTA EBren lehiakide izan zen nazioarteko organizazioa 60. hamarkadan, erresuma batuaren inguruan osatu zuten organizazioa zelako. Erresuma batua, ordea, ez zen izan hasieratik erkidegoaren kide. Arazoak etorri zitzaizkion De Gaullerengatik, honek ez zuelako ErB EB sartzeari nahi, blokeatu egin zuen bere atxikipena. Komertzio libreko gunea integrazioaren arabera ez doa merkatu komun bezalako sakotasunera, hau da, integrazio txikiagoko prozesua da. EFTA: Suiza, Norvegia, EB, Portugal, Esbeltzia, Dinamarka...*** EFTAko estatukide gehienak EBra sartu ziren 60tik 90ra arte.

70. hamarkadaren hasieran, erresuma batua eta irlanda eta danimarka europar erkidegora gehitu ziren. 80. hamarkadan, bi hedapen: Grezia. Greziaren atxikipena ikusia zegoen aurretik, baina estatu kolpea eman zuten eta etenda geratu zen prozesua, berrituz sartzeari lortu zuten arte. Espainia eta Portugal 86an atxiki ziren europar batasunera. 90. hamarkadako hedapena: maastrichteko garaian hamabi kideko komunitatera beste hiru kide sartu ziren: suedia, finlandia eta austria. Eta 2000ko hamarkadan, 15 estatukide izatetik 25 izatera igaro ziren. Eta hainbat urteren buruan beste bi. Eta azkenengoa kroazia izan zen. 60 hamarkada izan ezik beste denotan gertatu da hedapen bat edo bi, handiena 2000hamarkadan 12 sartu zirenak Europako ekialdetik: Estonia, Letonia, Lituania, Polonia, Txekia, Eslovakia, Eslovenia, Malta, txipre eta Hungaria. Pare bat urte beranduago Rumania eta Bulgaria. Europa hedatu da bai iparralderantz, bai mediterraneorantz, ekialderantz eta mendebalderantz. Sartzeko zain: Europa Balkanikoaren zati bat. Bosnia-Herzegobina, Serbia, Montenegro, Mazedonia (Jugoslabiako kideak), Kosovo, Albania.

Europako edozein estatuk, 2. artikuluan aipatzen diren balioak errespetatzen baditu eta balio horiek sustatzeko konpromisoa hartzen badu, Batasuneko kide izateko eskabidea egin dezake. Eskaera horren berri emango zaie Europako Parlamentuari eta estatu kideetako parlamentuei. Eskabidea egin nahi duen estatuak Kontseiluari zuzenduko dio eskaria, eta horrek aho batez erabaki behar du, Batzordeari kontsulta egin ondoren eta Europako Parlamentuak eskaria onartu ondoren; Parlamentuak kideen gehiengoz erabakiko du. Kontuan izango dira Kontseilu Europarrak onartutako hautagarritasunirizpideak. Batasunaren oinarri diren tratatuei dagokienez, onarpen horrek dakartzan onarpenbaldintzak eta egokitzapenak estatu kideen eta eskaera egin duen estatuaren arteko akordio batez zehaztuko dira. Akordio hori estatu kontratugile guztiei aurkeztuko zaie sendets dezaten, bakoitzak bere konstituzioko arauen arabera.

Europar sartzeko prozedura luzea jarraitu behar da, lisboako tratatuko 46. artikuluan azaltzen dena.

Europako edozein estatuk 2. art. balioak errespetatuz gero EBn sartuko dira.

Fisikoki ez daude garbi Europaren mugak.

Agertzen diren balioak bete egin behar dira eskaera posible egiteko. Gero etorriko da prozedura nahiko luzea, non parte hartzen duten Europar batasuneko hainbat instituzio. Artikuluan agertzen dena non prozedura oso luzea den (49 edo 46. artikulua).

EFTA eta europar batasunaren artean akordio bat dago eta zentzu askotarako eftakoak europar batasunekoak izango balira da.

EUROPAR HIRITARTASUNA

Civitas Grezia hiri-estatutik sustraitu zuten hiritar izaera da, gero Erromatarrek zabaldu zutena. Modernitaterako oinarri bat izan da Frantses eta Amerikar Iraultzaren ondoren. Honi atxikitutako baloreak zabaldu egin dira mundu osoan. EBren markoan zentratuko gara, bertan zer nolako presentzia eta garapena izan duen hiritartasun kontzeptuak.

Oso berandu agertzen da Europar hiritartasunaren kontzeptua 80H erdian. Lehengo komunitatea martxan jarri zituztenetik 30 urteetara. Hiritarra ez da oinarrizko agente politikoa izan Europar integrazio prozesuan. Oraingoan ere estatu-nazioetan izan duen rola parekoa. Nahiko egoera ahulean dago europar hiritarra. Ezer ez izatetik, zerbait izatera pasa da, beraz aldaketa handia dela esan daiteke. 80H erdian Altiero Spinelli Italiar figura pol erresistentzian, gero pol bihurtu zen, rol garrantzitsua jokatu zuen Europar Parlamentuan, izenaren aldaketa bultzatu zuen batik bat (lehen asanblada deitzen zen). Urte luzez parlamentari izan zen eta bere figuraren inguruan hainbat parlamentari eta Europar pol bildu ziren. Estrasburgon pol hauek biltzen ziren eta erreformaren proposamena gauzatu zen. Spinelliren Europar Batasuna proposamena aurkeztu zuen baina ez zuen aurrera egin. Honen barruan beste proposamen zeuden, gero bidea egin zuena, batez ere sinbologiaren inguruan. Spinelliren proiektuan hiritar hitza eta kontzeptua hasi zen erabiltzen Europa mailan. Hurrengo hamarkadan, 90H Mastickek ekarri zuen Europar hiritartasunaren kontzeptua.

Jurisprudentziaren bitartez europar auzitegiak garatu egin zituen zenbait eskubide, batez ere mugikortasunaren inguruan. Hasieran, langileentzat soilik, mugikortasun eskubide horrek jatorrizko tratatuetan zeuden baina auzitegiaren jurisprudentziaren harira langileentzako ziren esk horiek beste populazioaren kategoria batzuei errekonozitu zitzaie, esaterako langileen senitartekoentzat. Auzitegiak esan zuen: egiatan langileen mugikortasuna sustatu nahi bada, ezagutu behar zaie ere langileen familiei mugitzeko eskubidea eta beste estatuetan egoitza hartzeko esk. Ondoren, beste kategoria batzuk etorri ziren, hala nola, ikasleak eta jubilatuak. Beraz, hedapen handia eman zen, hasieran langileen mugikortasun esk zena, pertsonen mugikortasun esk bihurtu zen, pertsonaren kategoria orotara hedatu baitzen esk. Lanaren bila mugitzeko ere (ez eskaintza batekin beste toki batean lan egiteko) edo lanaren bila ez joan arren 3 hil beste estatu kide batean egoitza hartzeko. Lehen egoitza hartzeko beharrezkoa zen baimena. Dena dela, 3 hil areago egoitza hartzeko asmorik balego, orduan auzitegiak eskatzen zuen pertsona hori batetik, sanitate aseguru bat eta bestetik baliabide ekon nahikorik bazuen konprobatzea. Hala ere, ez zen guztiz zabaldu esk hau, muga batzuk ezarri baitziren.

Esk horren hedapena ez zen sententzia bakarrean etorri ezta erregelamendu edo direktiba bakar batetik, zenbait urtetako ibilbidea behar izan zen horrelako egoera batera heltzeko. 90H tratatutara ekarri egin zituzten esk horiek, jada jurisprudentzia oso bat zegoen arlo honetan.

20. artikulua (lehenengo 17. artikulua EET)

1. Batasuneko herritartasuna sortzen da. Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea daukan pertsona oro izango da Batasuneko herritar. Batasuneko herritartasuna erantsi egiten zaio estatu kide bakoitzeko herritar izaerari ordeztu gabe.

2. Batasuneko herritarrak Tratatuaren ezarritako eskubideen titular eta eginbeharren menpeko dira.

Besteak beste, eskubide hauek dituzte:

a) estatu kideetako lurraldean askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea dute;

- b) hautesle zein hautagai izateko eskubidea dute, bai Europako Parlamenturako hauteskundeetan, bai eta bizileku duten estatu kideetako udal-hauteskundeetan ere, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan;
- c) herritar direneko estatu kideak ordezkaritzarik ez daukan hirugarren herrialderen baten lurraldean, beste edozein estatu kideetako agintari diplomatiko eta kontsularren babesa hartzeko eskubidea dute estatu horretako herritarren baldintza berberetan.
- d) Tratatuaren hizkuntzetako bat erabiltzeko eta erantzuna hizkuntza horrexetan jasotzeko eskubidea dute, Europako Parlamentuari eskaerak egin, Europako Arartekoarengana jo eta Batasuneko instituzio eta organo aholku-emaleei zuzentzean. Eskubide horiek baliatzeko orduan badira baldintza eta muga batzuk, Tratatuak ezarritakoak eta Tratatuak aplikatuta hartutako neurriek finkatutakoak.

Herritartasun kontzeptua eta nazionalitatearen kontzeptuak agertzen zaizkigu. Bi hauek ez dira gauza bera. Sistema juridiko batzuetan onartuta dago bi nazionalitate egotea, baina ez da posible hiritartasun batzuk izatea. Europako hiritarra izateko estatukide baten hiritarra izan behar zara.

Eskubideak lotu egin ziren hiritartasunari eta ez nazionalitateari. Alemanian adib. argi desberdindu dute bien artean. Alde batetik nazionalitate kontzeptua zegoen (nationalität) eta bestetik estatuari atxikitzea (Staatsangehörigkeit). Populazio germanikoa nahiko barreiatu zegoen Europa osoan ez Alemanian soilik (XIX. mendean sortutakoa). Alemaniak lortura bat mantendu nahi zuen Reichean bizi ez ziren Alemaniarekin, lotura etnikoa mantentzearen, alemaniar guztien errekonozitu zitzaizkien nazionalitatea, baina hiritartasuna soilik Alemanian bertan bizi ziren alemaniarrei, hau lotura politikoa batuago egongo zen. Sistema germanoak ondo ezberdindu zituen bi kontzeptuok. Beste sis batzuetan ez dute inongo diferentziarik egin bien artean, gauza berdina bailitza. Hiritarra izateko naziotasuna behar da. Zenbait sis posiblea zen estatuaren naziotasunaz gain beste sis batzen naziotasuna izatea, beste sis batzuentzat ezinezkoa zen bi naziotasun batera izatea. Nazio monopolistiko vs plurala.

EK ezarri zuten disposizio bat estatuak bere hiritartasunez ez uzteko den hiritarrari. Estatu totalitarioetan nahiko gauza arrunta bihurtu baitzen estatuaren arerioa zenari nazionaltasuna kentzea, Sobiet Batasuna eta nazien garaian. K askok xedapenen artean sartu zuten hiritarra den bati hiritartasuna ez kentzeko.

Cuius regio eius religio: Hasieran erlijioan egiten zena hiritarrei aplikatu zitzaien. Westfaliako tratatua (1648) ordurarte erlijio gerrak egon ziren, batez ere Frantzia, Flandia, Alemanian, Txekian...

Printzea katolikoa balitz, subdito guztiak protestanteak eta horrela erlijio guztiekin. Argi ikusten da estatu nazioaren moldean printzipio berbera hartu izan dutela. Printzea espainiarra bada, denak espainiarrak. Erlijioa eta pol jarraipena argi dago beraz.

Westfaliakoaren aurretik, Nanteseko tratatua egon zen (1598). Frantzia Enrique Frantziako IV eta Nafarroako. Lehenengo borroka Frantziako tronora iristean bera protestantea izanik, bere ama protestante izan zelako (Alberteko Joana, Joanes Leizarragari esan zion testamentu berria euskaratzea). Enrikeri esan zioten katoliko bihurtu ondoren Frantziako errege bihurtuko zuten. *Paris merece una misa*. Nantesen tratatua firmatu zuen, horren arabera European lehen aldiz subitok orok zuen aukera aukeratzeko, Kontzientzia eskubidea zegoen, subditok orok bere erlijioa izateko esk.

Ezaugarri esanguratsua hiritartasunaren inguruan. AEBtan jaiotako orok eta baita amerikar nazionalizatuek ere izango dute amerikar hiritartasuna eta baita egoitza duten estatuaren hiritartasuna ere. AEBko konstituzioaren arabera, amerikar hiritartasuna lortuko da jaiotzaz edo ondoren lortuta, eta baita, egoitza duen estatuko hiritartasuna ere. Beraz, bidea Europakoaren aurkakoa da: European, lehenengo estatu bateko hiritar izan behar da ondoren Europako hiritar izateko. Lisboako tratatuan itsatsi da europear hiritartasuna ez dela izango estatu bakoitzeko hiritartasunaren ordezkia.

Beraz 20. Artikuluan daukagu bildurik, gutxi gora eskubide gehienak Maestrichekin batera batu zirenak Europar batasunera. Libreki mugitzeko esk jurisprudentziatik datozkigu gehienbat. Ez ordea hautagai edo hautesle izateko hauteskunde europarretan.

18. artikulua
(lehenengo 12. artikulua EET)

Tratatuaren aplikazio-eremuan, eta horietan aurreikusitako xedapen berezietan kalterik egin gabe, nazionalitatean oinarritutako edozein bereizkeria debekatuta dago. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, aipatutako bereizkeriak debekatzeko beharrezko arau guztiak ezar ditzakete.

24. artikulua: HERRITAR EKIMENA
(lehenengo 21. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, erregelamendu-bidez, legegintzako prozedura arruntari jarraituz onartuko dituzte nahitaezko prozedura eta baldintzei buruzko xedapenak herritar-ekimenen aurkezpenarako, Europar Batasunaren Tratatuaren 11. artikuluekin bat, baita ekimena aurkezten duten herritarren jatorri diren estatu kideen kopuru minimoa finkatzeko ere. Batasuneko herritar orok Europako Parlamentuari eskariak egiteko eskubidea edukiko du, 227. artikuluan xedatutakoaren arabera. Batasuneko herritar orok, halaber, 228. artikuluan xedatutakoaren indarrez eraturako Arartekoarengana jo dezake. Batasuneko herritar orok, bestalde, artikulua honetan eta Europar Batasunaren Tratatuaren 13. artikuluan aipatutako edozein instituzio edo erakundetara jo dezake idatziz, tratatu horretako 55. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako hizkuntzetakoren batean, eta hizkuntza berean jaso erantzuna.

Gob eta parlamentuak ez izateko bakarrik legezko bidea, herritarrek ere izan dezaten. Erdi milioi sinadura eskatzen dira, Europan ordea milioi bat. Orain arte ez da inoiz gauzatu.

25. artikulua

(lehenengo 22. artikulua EET)

Batzordeak, hiru urtean behin zati honen xedapenen aplikazioari buruz txostena emango die Europako Parlamentuari, Kontseiluari, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari. Txosten horretan Batasunaren bilakaera hartu behar da kontuan. Hori oinarri dela, eta Tratatuaren gainerako xedapenei kalterik egin gabe, Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten arabera eta Europako Parlamentuak onartu ondoren, 20. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako eskubideak osatzera bideratutako xedapenak onar ditzake. Xedapen horiek indarrean sartzeko, estatu kideek onartu egin behar dituzte, nork bere konstituzio-arauen arabera.

Europako herritarrek dituzten eskubideak Lisboako Tratatuaren 20. artikuluan azaltzen dira. Horiez gain, 18. artikuluan debekatzen da nazionalitatean oinarritzen den bereizkeriarik egitea. Beste eskubide bat 24. artikuluan: herritar ekimenerako eskubidea onartzen da. Herritar ekimenak esan nahi du parlamentuari proposamenak aurkezteko gaitasuna esan nahi du. 25. artikuluan onartzen den eskubidea: eskubide gehiago lortzeko gaitasuna ematen du, ate irekiak utziz.

GIZA ESKUBIDEAK

Europar kartan aurreko esk bertan ere kokatu dituzte. Kapitulu oso bat dago europar hiritartasunari loturik dauden eskubideena. Giza esk printzipioz beste nazioarteko organizazio bati dagozkio, Europako kontseilua. Europako kontseilua giza eskubideen asuntuen inguruan babesa emateko oinarritzko esk/ask, horretarako nazioarteko jurisdikzio berria eratu zuten eta Europako kontseilu horrek jurisdikzioa hartu zuen oinarritzko esk/ask katalogo baten gainean, zeinari deitu egin zioten Europar Konbenio. Halako karta bat da hainbat oinarritzko esk/ask biltzen zituena. Horren gainean Europako kontseiluko Auzitegiari eman zioten jurisdikzioa. Estatu sinatzaileen jurisdikzioetan katalogo horrekiko konformitatea aztertzeke elkartu ziren. Konpromezua hartu baitzuten haien estatuaren giza esk/ask kudeaketa egingo zutela konbenioarekin bat. Hori izan zen Europako kontseiluaren funtsa. EB markoko jarrera, Konbenioarekiko edo propio egiteko EB konbenio bat? Aspaldiko kontua izan zen. EB markoan giza esk/ask begira: Auzitegiaren rola garrantzi handikoa izan da, bere jurisprudentziaren bitartez auzitegiak EBko baitara ekarri baitu giza esk errespetua.

Sententzia garrantzitsuak daude honen inguruan:

- Stauder: sententzi honetan auzitegiak esan zuen gizabanakoaren oinarritzko eskubideak zirela zuzenbide komunitarioaren printzipio orokorrak.
- Internationale Handelsgericht: ebazpen honetan batasuneko auzitegiak esan zuen oinarritzko eskubideak oinarritzen zirela estatukideetako printzipioarekin. Hau da, estatuko konstituzioetatik zetorrela eskubideen babesa europar batasunarekiko.
- Nold: auzitegiak esan zuen europar konbenioan zeuden eskubideak ere batasunarentzat erreferentzia zirela.

Tribunalaren zeregina urte batzuetan zenbait sententzien bitartez giza esk babesa bereganatzea izan da.

Gero, etorri dira lehen aipatutako bi galdera horien inguruan erantzunak: hau da Batetik Europaren karta Nizan egin zutena Nizako tratatuan 2000. urtearen inguruan egin zutena, hor kokatu zuten eskubide eta oinarritzko libertate zerrenda/ lista bat eta horri deitu zioten europako karta 2007 arte ez zuen kartak eragin juridikorik izan tratatuan ez zegoelako karta hori, ala ere ezagutu egin diote tratatuan balego bezalako eragin juridikoa.

Gero tratatuan ere ezarri dute batasuna ezagutuko duela Europako kontseiluko konbenioa.

8. artikulua

1. Batasunak lehentasunezko harremanak garatuko ditu auzoko herrialdeekin, oparotasun-gunea eta auzoarte jatorreko

esparrua ezartzeko, betiere, Batasunaren balioak oinarri, eta lankidetzan eraikitako harreman estu eta baketsuak ezaugarri dituela.

2. Batasunak, 1. paragrafoaren ondorioetarako, berariazko akordioak sinatu ahal izango ditu herrialde horiekin. Akordio horietan elkarrekiko eskubideak eta betebeharrak sartu ahal izango dira, baita elkarrekin ekintzak burutzeko aukera ere. Hitzarmenak aplikatzean, kontzertazioak egin beharko dira aldiro-aldiro.

**

Lisboako tratatuaren batasunean 6. Artikulua: *1. Batasunak 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen ditu, 2007ko abenduaren 12an Estrasburgon onartu zen bezala, Tratatuaren balio juridiko berbera izango duelarik.*

Balio juridiko bera izango duela da inportanteena.

Batasunak 2000ko oinarrizko eskubideen gutunean ezarritako eskubideak onartzen ditu, eta tratatuetako balio juridiko berdina izango dute.

Konpromesua hartzen da batasuna Europako hitzarmenari atxikitzeko eskubideak eta libertateak babesterakoan. Baina honek ez ditu aldatuko tratatuetan adierazten diren eskumenak.

Beraz konpromisoa hartzen da Europako kontseiluko konbenioari atxikitzeko, orain hori posiblea da batasunak baduelako izaera juridikoa baina lehen ez zuen beraz ezin zezakeen konbeniorik sinatu bere izenean. Beraz egunen baten atxikipen hori gertatuko da, posible delako eta horren aldeko borondatea tratatuan dagoelako. (Orain posible da orain izaera juridikoa du, lehen ez, ezin zuen konbeniorik sinatu bere izenean. Lisboako tratatuan lortu zuena.)

EB salbuespen batzuk onartu zizkien estatu batzuei: Erresuma Batua, Txekia eta Polonia.

2007 urtetik Europar agentzia egon badagoela giza eskubideei babes berezia emateko, hori Vienan kokatuta dago, lehen xenofobia agentzia zena eskubidearena bilakatu zen eta egoitza mantendu zuten.

-Tratatuetan ezagututako esk/ask

-Europako kontseiluko konbeniokoak

-Europar kartakoak

-Estatu kideetako Kedo tradizio konstituzionaletan biltzen direnak.

EB babesean dauden esk/ask:

Europar kartak Nizan du sorburu 2000. Urtean, Lisboako tratatuaren bitartez (2007), tratatuan bertan ez egon arren eragin juridiko berdina eman diote. Osaera: 54 art, 7 kapitulu (duintasuna, askatasunak, berdintasuna, solidaritatea, hiritartasuna (39-50.art), justizia, xedapen orokorrak) Hor biltzen dira Europako konbenioan zeuden eskubide asko eta baita eskubide berriak ere, esaterako, giza-klonazioaren debekua (3. artikulua). 50. artikuluan: gauza berberarengatik ezin daiteke berriro epaiketara joan. 47: babes judizial eraginkorra.

Bi salbuespen daude eskubide eta libertateei dagokienez, bietan justizia auzitegiaren rola, batetik barneko aferei buruz eta bestetik nolabait kanpoko aferei begira. Mastrikeko egitura berrian 2 zutabe berri agertu ziren. Erdiko zutabea lehen EEEa zena, ekonomia hitza galdu zuen eta Europar Erkidego bezala geratu zen, zutabe nagusi gisa. Beste bi zutabeak barne eta kanpo aferei buruzkoak dira. Bi zutabe hauei dagokienez, justizia auzitegiak dituen ahalmenak ahulagoak dira giza-eskubideak kontrolatzeko.

276. Artikulua: Justizia Auzitegiaren ahalmenak mugatuak dira barne aferetan.

Askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruzko hirugarren zatiko V. tituluko 4. eta 5. kapituluetakoa xedapenak direla-eta dituen eskurantzak gauzatzean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez dauka eskumenik estatu kideren bateko poliziak edo legea aplikarazteko ardurarik beste zerbitzuek egindako operazioen baliozkotasuna edo heinekotasuna kontrolatzeko, ezta estatu kideek ordena publikoa zaintzeko eta barne-segurtasuna babesteko dituzten erantzukizunak betetzean egindakoez erabakitzeko ere.

EBko 24.1: Ahalmen mugatua ere.

Tratatuen arabera. Europako Parlamentuaren eta Batzordearen berariazko egitekoa arlo horretan Tratatuaren zehazten da. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez du eskumenik izango xedapen hauei dagokienez, baina bai izango du eskumena tratatu honetako 40. artikulua errespetatzen dela kontrolatzeko eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 275. artikuluko bigarren lerrokadan aipatutako zenbait erabakiren legezkotasuna kontrolatzeko.

2 EUOPAR BATASUNA

Batasunaren izaera ulertzen. Zertan gabiltza?

Delors (80H): OPNI (Objeto Politico No Identificado).

Batasuna artefakto politiko bat da. Esperimentu historikoa, ineditoa, aurrekaririk gabeta.

Batzuk: estatu elkarteak. Besteak: federalizazioko ezaugarri asko. Askok: konfederazioa.

Iñigo: Guk ezagutzen ditugun parametro historikoetan oinarrituta, nahasketa. Horregatik ezaugarri bezala intergubernamentalismoa eta supranazionalismoa (estatu gainekotasuna). Bi hauen artean tentsioa dago, batek hurbiltzen gaitu konfederazio eskemara, besteak aldiz, federalismora. Sortu dituzte instituzioek ahalmena dute erabakiak hartzeko, zeinak lotesleak direnak estatu kideen artean eta erabaki horiek lotura juridiko zuzena sortzeko gaitasuna dute hiritarren artean. Bi printzipio: Eragin zuzena. Hierarkia: EBZ nagusitasuna estatukideetako ordenamendu juridikoekiko. Hauek biak eragin "federalizantea" dute. Beste alderdi askotan, erabakiak hartzen dira non, gobernuen arteko harreman nagusia den, Europar Kontseiluan. Zenbait erabaki hartzen dira estatu kideen artean tratatuen mugetatik at, hau da ez dituzte tratatuak erabiltzen eta tratatuetan eragina izango duten erabakiak hartzen dira EBko markotik at. Esaterako, Greziaren krisia. Estabilitaterako tratatua sinatu dute eta tratatu horren ondorioz baldintzatu egin dituzte oso nabarmenki estatu kideetako pol ekonomikoak. Horren ondorioz, zergarako edo defizit presupuestariorako mugak, hauek baldintzatzen dituztelarik estatu kideetako pol ekonomikoak. Batzuetan intergubernamentalismoa nagusitzen da eta beste batzuetan supranazionalismoa, eta honek europar batasunaren ulermena asko zailtzen du. Berezko egitura instituzionala da, eta egitura hau denboran zehar aldatuz joan da.

BALOREAK ETA HELBURUA

Tratatuetan daude baloreak eta helburua, hauek ezagutzea errazagoa da. Baina tratatua gauza bat da eta pol edo errealtatea beste bat. Batzuetan hauek ez datoz bat. Konstante bat izan da historian hau, alde batetik doa diskurtsoa eta bestetik praktika.. Lehen elizak egiten zuena orain politikariek egiten dute, predikatzen dute eta gero agian ez dute hori egingo. Zaila da ulertzea egiantan zeintzuk diren baloreak eta helburuak. Gu saiatuko gara tratatuetan ezarri dituztenak ezagutzen.

GLOBALIZAZIOA ETA MERKATUA

Alde batetik globalizazioa eta bestetik merkaturak agertzen zaigu bi hitz potolo. Hau aztertu gabe ez da posible ulertzea zertan dabilen EB. Europako integrazio prozesua ere glob adibide da. Merkatu globalizatuaren garapena harreman estuan dago EBrekin. Globalizazioa eta merkaturak ez dira gauza bera orain edo lehen.

IZAERA

Proiektu batean gaude eta dakigu gauza handirik, esperimentu batean. Ezin dugu konparatu orain dela 100urtekoa gaur egungoarekin edo gaur lurralde desberdinetan bizi garela, ez garelako denok bizi esperimentu berdinean, gu guztiok ari gara globalizazioko esperimentuan. Ez dakigu zein den europar batasunaren izaera. Gu esperimentu politiko batean bizi gara, eta esperimentu hori dela-eta, aldatu egin da EBk zuen izaera.

Parlamentuetan eta hauek hautatzeko hauteskundeetan hautatzen dena ez dator bat estatu nazio horren mugetan erabakitzeko ahalmenekin eta aldiz, esaterako Europar Hauteskundeetan hautatzen dena ez du balio EBren mugetan hartzen diren erabakiak hautatzeko. Paradoxa politiko batean bizi gara. Orientabide nag pol emateko Europar Kontseilua. Estatu nazioetako hauteskundeetan hautatzen da. Baina hauteskunde hauetan ez da eztabaidatzen europar politikaz barne politikaz baizik. Barne pol horiek Europatik datoz erabakita. Estatu nazioetako hauteskundeetan barne pol hitz egiten da, baina hauek Europatik baldintzatuta daude. Gero EBko hauteskundeetan Europar pol ez dira erabakiko. //

Parlamentuan eta berau aukeratzeko hauteskundeetan hautatzen dena ez dator bat estatu horren mugetan agintzeko duen mugekin. Eta europar hauteskundeetan hautatzen denak ez du balio europar batasunaren mugetan hartzen diren erabakiak hartzeko.

Barne-politikak europar kontseilutik datoz, baina, europar parlamentuak ez du erabakitzen europar politika, sistema parlamentarioan egiten da moduan, europar parlamentuko hauteskundeetatik ez da osatuko gobernuak.

Paradoxa honetan, barne-politikez hitz egiten da, baina, hauek EBko politikatik datoz, eta ez da horretaz hitz egiten. Baina, gero Europako hauteskundeetan ez da europar politika erabakitzen, barne politika baizik.

Estatu kideak barneko boterea galdu dute eta ahalmen batzuk eman die botere zentralari EBri. Botere berri horretan Ek orok partekatuko dute emandako barne botere hori, beste Ek batera.

Ez da estatu bat, estatu baten zantzuak ditu. Ez da nazioarteko organizazioa soilik. Ez dago definizio osaturik. Indefinizioan bizi gara. Baina hau ez da infinitoa.

BALOREAK

2. artikulua

Batasunak oinarrizko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatu eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan.

Gizakiaren duintasuna goreneko balorea da, horregatik hasten dira baloreen zerrenda kontzeptu honekin.

Irtenbide juridiko asko eta oso ezberdinak.

Adb: Testu bat egin. Ulertu behar dugu testuak interpretatzeko baliabideak behar ditugula ordenamendu juridikoan, ze interpretazio desberdinak egitea oso normala delako. Baina testu horren esanahia erabakitzeke nori emango diogu ahalmena? Auzitegiari? Parlamentuari? Legegileari? Ezinbestekoa delako iritzi bat testu bat egitean. Ze komeni da auzitegiari eramatea erabakia hartzeko? Edo parlamentura? Ez dago manualik hori jakiteko, zer den onena.

EBko tratatuan ezarri izan dituzten baloreak. 2. artikuluan aipatzen dira balore horiek: gizakiaren duintasuna (goreneko balorea da, zerrenda balore honekin hasten baita), askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatu eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla.

Estatukide guztiek erkide dituzte balore horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan. Gizartearen baitan egon behar dira gauza hauek, baloreak dira. Ez dute zerrenda oso luzea egin, bi zatitan banatu dute.

Baloreak ez dira absolutuak, ez dago interpretazio jakin bat baloreen gainean, bakoitzak bere interpretazioa egin dezake. Balorazioa egiten denean beti baloreak haztatu (ponderar) behar dira.

3. artikulua (lehengo 2. artikulua EBT)

1. Batasunak bakea, bere balioak eta bere herrien ongizatea sustatzea du helburu. (Noiztik? Maestricheko 3 zutabe horietan bat segurtasun justizia eta hori barne aferetako egin zutenetik).

2. Batasunak askatasun, segurtasun eta justiziako eremua eskainiko die bere herritarrei, barneko mugarik gabe, bertan pertsonen zirkulazio askea bermatuta egon dadin, kanpoko mugen kontrolerako, asilorako, inmigraziorako, eta delitugintzari aurrea hartu eta bere kontra borrokatzeko egokiak diren neurriak hartzearekin batera.

3. Batasunak barne-merkatua ezarriko du. Europaren garapen iraunkorraren alde egingo du lan, horretarako oinarriztat hartuta ekonomia-hazkunde orekatua eta prezioen egonkortasuna, enplegu betea eta gizartearen aurrerabidea jomuga dituen lehiakortasun handiko merkatuko ekonomia soziala, eta ingurumenaren babes-maila eta kalitatearen hobekuntza-maila handia. Era berean, aurrerabide zientifikoa eta teknikoa ere sustatuko ditu.

(Barne merkatua. Garapen iraunkorra: Azkenaldian itzalean geratu da gai hau. Ekonomia-hazkunde orekatua: g.e. aurkakoa, oso desorekatua izan delako.)

Batasunak gizarteko bazterkeriaren eta bereizkeriaren aurka egingo du eta gizarte justizia eta -babesa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna eta haurren eskubideen babesa sustatuko ditu.

Batasunak estatu kideen arteko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa eta elkartasuna bultzatuko ditu.

Batasunak bere kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna errespetatuko du eta Europaren kultura-ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du.

4. Batasunak ekonomia- eta diru-batasuna ezarriko ditu; dirua euroa izango da.

5. Munduko gainerakoekin dituen harremanetan Batasunak bere balioak eta interesak indartu eta sustatuko ditu, eta bere herritarren babesa bultzatuko du. Bakea, segurtasuna, Lurraren garapen iraunkorra, herrien arteko elkartasuna eta errespetua, merkataritza aske eta zuzena, pobretasuna ezabatzea eta giza eskubideak —batez ere haurren eskubideak— babestea, nazioarteko zuzenbidea zorrotz bete eta garatzea, eta, bereziki, Nazio Batuen Gutunaren printzipioen errespetua bultzatuko ditu.

6. Batasunak bitarteko egokiak erabiliko ditu bere helburuak lortzeko, Tratatuaren ematen zaizkion eskumenen arabera.

Helburuak lortzeko bitarteko egokiak erabiliko dituela eta EB eskumenen banaketaren arabera lan egingo du. Helburu multzo bat hainbat alorretara begira, dena dela ez dago helburu politiko zehatz bat, ez du inoiz aipatzen Europako helburua. Inoiz ez esan Batasunaren helburua Europako EB federazioa lortzeko denik. Zaila da jakitea zein den EBren jomuga. Batzuk

esaten dute B balio izan dela estatu-nazioak irauteko. Gerra ondoren estatu-nazioaren izaera eta prespektiba aurrera begira ahul geratu zen eta B lagundu egin die iraute. Estatu-nazioaren aldeko plataforma bat dela esan daiteke hauek historian jarrai dezaten. Barruan kokatu egin dituzte estatu-nazioak. Askotan hauen eskumenak B banatzen. Eskumen hauen kudeaketa Bko instituzioei emanez edo gob artean kudeatzen.

Honek beste asunto batera garamatza, hots, naziogainekotasun eta gobernuenuen artekotasuna (intergubernamentalismo, supranazionalismo. Gobernuen artekotasuna betidanik nazioartean harremanetarako dagoen printzipioa da. Naziogainekotasuna haratago doa izan ere, honen bitartez obligazioak sortzen direlako estatuiekiko baita hiritarrekiko ere. Nazio arteko harremanean obligazioak sortzen dira soilik estatuiekiko.

Bi printzipio hauek beti present daude. Batzuetan baten alde jokatzeko da eta alderantziz, nahiz eta ez dagoen garbi zergatik. Esan daiteke 2000. urterarte B integrazio prozesio horrek bis expansiba (bokazio, ibilbidea izan duela) beti batasunaren alde. Geroz eta ahalmen gehiago ematea B alde, estatukide gehiago... Handitze hau oso nabarmena izan da askotan, baina beste batzuetan ez. Erreforma sakonak gertatu izan dira (Mastric), beste batzuetan tamaina edo dimensio txikikoak izan dira, baina beti zentzu berean. Hau krisialdian sartzen da 2000. Hamarkadan, erreforma proiektu handi bat atzera bultzatzen dutelako, K porrota, estatu kideetako hiritarrek, kasu honetan Frantzia eta Herbeheretan. Konmozioa sortu zuen B osoan eta ordurarte aldaketa eta erreformaren alde bozkatu zutenek atzera egin zuten, nahiz eta estatu kide gehienetan erreforma aldeko jarrera zegoen. Lehenengo aldiz esan daiteke proiektua kolokan gelditu zela. Proiektuarekin hasieratik izan zuen norabide hartan esan nahi dugu, Batasuna hartan. Gero Lisboako tratatuaren bitartez hein handi batean K proiektuaren testuan jasotzen zena errekonstruatu egin dute Lisboako tratatuaren edukiaren bidez. Horrelako saihasbidea erabili izan dute berriro batasuna lortzeko. Krisialdiaren ondorioz B ahalmena handitu egin dute, baina ez dute erabili tratatuaren erreforma, nazioarteko tratatu berriak sinatu egin dituzte batasunaren ahalmenak handitzeko. Ezagunena Egonkortasunaren aldeko tratatua, zeinaren bidez partzialki batasun fiskalerako aurrera pasuak eman izan dituzte baita ere estatuiekiko aurrekontuak kontrolatzeko tutoretzan ezartzeko. Aste honetan polemika batzordearen afera pol dagoen Moskovi oso kritikoa azaldu izan delako Espainiaren aurrekontuaren superbisioaren inguruan.

Aurrekontuak parlamentuan onartu baino lehen (azaro-abenduan onartzen dira, urte amaiera baino lehen) tramitazio parlamentua irailan hasten da, maiatzean ere aurkeztu behar dira aurrekontu hauen anteproiektua Europar batzordeari. Honek aztertu eta nolabait eramango ditu aurrekontu horiek bat egin dezaten batasunak dituen helburu ekonomikoekin. Zenbait muga ez gainditzeko, batez ere euroguneari oreka bat emateko, ahalmen berriak dira ez tratatuak erreformatu izan direlako nazioarteko tratatu berri bat egin dutelako baizik. Nazioarteko tratatu horrek garrantzi handia du K erreformetara eraman baititu. Erreforma horiek baldintzatzen dute estatuaren subiranotasun pol. *** Mugak ezarri dituzte K bertan. ***

Zuten konfidantza hiritarengan, prozesuaren alde egingo zutela bukatu egin da. Horregatik ez dute nahi erreforma formal batean sartu nahi. Horregatik erabiltzen dute nazioarteko tratatuak gauzak aldatzeko.

Nolabait integrazio prozesuaren ikuskera edo bederen lotzen zitzaien integrazioak lagundu egin duela estatu kideetan ongizatea lehen ikusi izan genuen garapena, hazkundea, ongizatea, gerraren ostean Europar gertatu izan da estatu kideetan, batzuk lehen beste batzuk beranduago. EBri loturik eta logika sinple baten arabera, ez zaie 2000. Hamarkada arte oztopo handirik ipini B garapenari, hots, geroz eta ahalmen gehiago izateari. Frantzia eta Herbeheretan kolokan geratu zen ikuskera hori. Eta kolokan jarri zuten hain zuzen ere hasieratik kide izan ziren bi estatu. B ibilbide historikoan nolabait batasunaren eta estatukideen artean zegoen oreka apurtu egin zelako. Batasunaren ahalmen hazkundea ez zen etorri sistema demokratiko baten bidez are gutxiago Bren indartze ahala estatu kideetako ahalmen demokratikoa ahuldu egin da. Estatu nazioaren mugetan erabakitzen zena orain B marko eta egitura instituzionalean gertatzen da. Europar hiritarrok ez dugu ahalmen nahikorik erabaki horiek kontrolatzeko ez bada oso era urrunean. Bren bitartez estatu nazioaren oinarria izan dena, estatu soziala ahultzen ari delako. B helmuguen artean ez dago estatu soziala. Hori jada ikusi da, ez da BPG %1ekin banaketa sozialik egitea. Banaketa soziala estatu-nazioaren barnean egiten da. Baina batasunaren paradigma ekonomikoa ez dator bat estatu-nazioetan oinarri izan den paradigma sozialarekin. B bitartez esatatu nazioaren egitura soziala desitxuratzen ari da.

MERKATUA eta ESTATUAREN harremanak.

Gakoa munduaren ulermena jasotzeko. Estatuaren eta merkatuaren arteko harremana funtsezkoa da ekon, pol, gizarterako,

aldatuz joan da oso era nabarmenean Europan. B daraman paradigma merkatuaren alde egiten du batez ere. Merkatuaren gehiagoren alde, honen papera handitzearen alde. Aldi berean estatuaren rola gutxitzen/ahultzen doa. Esaterako, 3.art: prezioen egonkortasuna aipatzen da helburuen artean. Baina Europar Banku Zentralerako helburu nagusia da, globalizazioan oso paper garrantzitsua jokatzen ari den Nazioarteko Funtz Monetarioarentzat. Behin eta berriro aztertzen bada IMFren jokaera 70H hona, beti agertzen da pol bat eta bera, inflazioaren aurkako jarrera bortitza. Aldi berean enpleguaren edo hazkundearen gutxitze jarrera nabarmena. ***

GLOBALIZAZIOA

Rodrick: Ez da posible estatua, globalizazioa eta demokrazia aldi berean.

Bateratze prozesuarengatik trukaketak handitzen dira, herrialde zein pertsonena. Dimentsio global batean.

Teknologiak posible egin du informazio eta garraioaren garapena inoiz ez bezala: Internet eta kontainerrak.

Gora beherak egon dira. IMG eta IIMG arteko tartean, non globalizazioa ahulduz joan zen nabarmenki. IMG aurretik trukaketa gehiago izan ziren gerra ondoren baino. Gehiena gure garaian ematen ari da, gainera ematen du tamaina geroz eta handiagoa dela, ez du ematen atzera bueltarik ez ahulduz joan daitekeenik.

Globalizazio garai honetako baliabiderik inportanteenak izan dira Breton Woods bilkura horretan eratu izan zituztenak 1944an panorama garbitu izan zenean, aliatuak nagusitzean gerra osteko orden berria sustraitzeko oso bilkura garrantzitsua egin zuten breton Woods-en. Gerraosteko orden berria ezartzeko Keynes (Britainia Handiko ekonomilaria): krisialdiak sortzen direnean estatuaren papera garrantzitsua da, honen interbentzioa ezinbestekotzat hartuz. Aurrekontuaren kudeaketaren bitartez, gastu publikoa handituz, zergak ere gutxituz ekon larrialditik suspertzeko.

Bretton Woddsen diseinatu egin zituzten globalizaziorako egonkortasunaren alde 2 nazioarteko organizazio. IMG eta WB. WB garapenean laguntzeko diseinatu zuten herri estatu pobreei. IMF krisialdian programa eta funts monetario baten bitartez, krisialdian zeudenei dirua emateko. Beraz, 1944an WB martxan jarri zuten eta 1945an IMF. Aurreikusita zegoen ekon mundiala lehen aldiz.

Stiglitz (ekonomilaria, novel sariduna) IMFek aldatu duela bere jardura. Honen papera ez da izan 1944an diseinatu izan zutena. 70H aurrera IMF men egin duela erkidego finantziarioaren interesetara. Bere interbentziotan izan duelako helburu estatuaren non IMF laguntza eskatu izan denean. Laguntzaren truk IMFek kapitalen irekiera eskatu du eta diru laguntzaren trukean inposatu egin du pol ekon kontraktiboak. Keynesen paradigman araber bere pol ekarri dute behin eta berriro demandaren austeritatea, inflazioaren aurkako pol, interes tasa handiak eta ia salbuespenik gabe IMFeko pol errezeziara eraman dute. Hamarkada luzetan beti munduaren beste leku batzuetan Europako leku batzuetan gertatzen ari zaigula, ze krisiaren inguruan europan garatu izan diren politikak IMFko politikak izan dira eta ondorioak Argentina ekialdeko Asian Errusian nonnahi errezezioa. Stiglitz-ek ere aztertzen du beste kasu batzuk non IMF ez martxan jarri adib Taiwan eta Korean: ondorio ekon askoz ere hobek izan dira. 2008tik aurrera ezarri diren politikak harrigarriak dira esperientzia hauen jakitun baiginen.